

Otsailak 11
Emakume eta Neska Zientzialarien
Nazioarteko Eguna

Amasa-Villabonako emakume zientzialariak oztopo guztien gainetik

*«Zaindu ondo gogoeta egiteko duzun eskubidea,
oker pentsatzea ezer ez pentsatzea baino hobea da eta»*

Alejandriako Hypatia

*«Conserva celosamente tu derecho a reflexionar,
porque incluso el hecho de pensar erróneamente
es mejor que no pensar en absoluto»*

Hypatia de Alejandria





Otsailaren 11 Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna da, garapen zientifiko eta teknologikoan ekarpenak egiten dituzten emakume eta nesken lana aitortzea eta goraiatzeari helburu duen eguna.

Historian zehar emakumeak ezinbestekoak izan dira aurkikuntza eta aurrerapen ugarietan, baina askotan hauen lana ikusezina izan da edo oharkabean igaro da. Beraz, otsailaren 11k emakume zientzialariek egindako ekarpenak balioan jarri, aitortu eta arlo zientifiko guztietan emakumeen parte-hartze aktiboa sustatu nahi du.

Gainera, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna honen helburua ere bada neska gazteak karrera zientifikoak egitera animatzea. Estereotipoak eraitsi eta pertsona guztiek, generoa edozein dela ere, zientzian euren talentua garatzeko aukera berdina izan ditzatela bermatzea.

Otsailaren 11 ospatzea, beraz, guztiontzako zientzia inklusiboagoa, anitzagoa eta bidezkoagoa lortzeko urratsa da.

El 11 de febrero se celebra el Día Internacional de la Mujer y la Niña en la Ciencia, una fecha que busca reconocer y destacar el trabajo de las mujeres y niñas así como agradecer sus aportaciones al desarrollo científico y tecnológico.

A lo largo de la historia, las mujeres han sido fundamentales en numerosos descubrimientos y avances, aunque a menudo su contribución ha pasado desapercibida. Por ello, el 11 de febrero quiere poner en valor las aportaciones de las científicas, reconocer su labor y fomentar la participación activa de las mujeres en todos los campos de la ciencia.

Además, este día también tiene como objetivo motivar a las jóvenes a seguir carreras científicas, desafiar estereotipos y asegurar que todas las personas, sin importar su género, tengan las mismas oportunidades para desarrollar su talento en el ámbito científico.

La celebración del 11 de febrero representa, por lo tanto, un paso hacia una ciencia más inclusiva, diversa y justa para todas las personas.



Herriko emakume zientzialariak oztopo guztien gainetik

Udalak eta *Berdintasunean Ados!* mahaiak zientzian lan egiten duten herriko lau emakumerekin hitz egin dute. Emakume hauek euren esperientziak partekatzeaz gain, urteetan gizonen presentzia nagusi izan den eremu batean nola nabarmendu diren azaldu dute.

Onintza, Alazne, Miriam eta Laurak zientziaren arloan dituzten erronkak eta lorpenak ezagutuko ditugu. Emakume hauen istorioak eredugarriak izan daitezke oraindik bide profesionala zein izango duten erabaki ez duten neska gazteentzat.

El Ayuntamiento y *Berdintasunean Ados! mahaiak* han hablado con cuatro mujeres de la localidad que trabajan en diferentes ámbitos de la ciencia. Estas mujeres no sólo han compartido sus experiencias, sino que han explicado cómo han conseguido destacar en un ámbito en el que durante años ha predominado la presencia masculina.

Conoceremos los retos y logros de Onintza, Alazne, Miriam y Laura en el ámbito de la ciencia. Las historias de estas mujeres pueden ser un ejemplo para todas aquellas chicas jóvenes que aún no han decidido cuál será su camino profesional.

ONINTZA

SAGREDO EZQUIOGA

IKASKETAK:
NEUROZIENTZIAN DOKTOREA

OGIBIDEA:
UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA
ETA IKERTZAILEA

LANTOKIA:
MADRILGO COMPLUTENSE
UNIBERTSITATEA



«Emakumeek ikerketa zientifikoan aktiboki hartzen dugu parte, baina gehiegitan gure lana itzalean geratzen da»

Zerk piztu arazi zizun zientziarekiko interesa?

Giza garunak beti izan du niretzat lilura sakona. Gure kontrol-zentroa da, nor garen eta mundua nola ikusten dugun definitzen duen organoa. Gaztetatik, haren funtzionamendua eta ahalmen ikaragarriak ulertzeko jakin-min handia izan dut. Santiago Ramón y Cajalek edonork, proposatzen badu, bere garuna zizelkatu dezakeela zioen. Niretzat ideia hori erronka pertsonala ez ezik, giza garunaren konplexutasuna hobeto esploratzeko eta ulertzeko etengabeko motibazio bat ere bilakatu zen. Gaur egun, garunari buruz zertxobait gehiago dakit, baina oraindik asko dago bere fisiologiaren eta nola gaixotzen den jakiteko. Galdera horietako batzuk erantzutea da ikerketan dudaren interesa elikatzen jarraitzen duena.

Zein da zure ibilbide zientifikoan izan duzun erronkarik handiena eta nola gainditu duzu?

Ni Medikuntzako Fakultateko irakaslea naiz. Horrek nire lanaldiaren zati bat betetzen du, eta nire ikerketa-talde propioa izatea oso erronka handia izan da. Gure ikerketa-proiektuak garatzeko finantzaketa

lortzea ez da erraza izan, baina lantaldearen lan bikainari esker lortu dugu.

Zer nolako ekarpena egiten diote emakumeek garapen zientifiko eta teknologikoari?

Historian zehar, emakumeek funtsezko zeregina izan dute aurrerapen zientifiko eta teknologikoan hainbat diziplinan. Hala ere, askotan, haien lana gutxietsia edo ikusezina izan da. Medikuntzako Nobel Saria jaso duten 224 pertsonetatik soilik 13 izan dira emakumeak. Emakumeek zientzia medikoari ekarpen gutxiago egin diotela esan nahi du horrek? Inola ere ez. Emakumeek ikerketa zientifikoan aktiboki hartzen dugu parte, baina gehiegitan gure lana itzalean geratzen da, merezi duen aitortza eta ikusgarritasunik gabe.

Emakumeok gizonen baino zailtasun handiagoak ditugu gure lana aitortua izan dadin, genero-arrakala, aitortza falta eta baliabideetarako sarbide desberdina bezalako erronkei aurre egin behar baitiegu. Hala ere, gure eginkizuna funtsezkoa da ezagutzaren eta berrikuntzaren aurrerapenerako.

Zure ekarpen zientifikoak zer nolako eragina du jendartean?

Azken hamarkadetan kannabinoideen arloan egin den ikerketa handiari esker, gaur egun badakigu konpostu kannabinoideek hainbat gaixotasun dituztenen bizi-kalitatea hobetu dezaketela. Duela gutxi, lehen botika antiepileptikoa onartu da kannabinoideetan oinarrituta, epilepsia-sindrome arraroak dituzten haurren krisiak tratatzeko.

Zuzentzen dudan ikerketa taldeko helburua beste konpostu kannabinoide batzuk ere onuragarriak izan daitezkeela bai entzefalopatia epileptiko mota hauetarako, bai beste batzuetarako frogatzea da.

Kannabinoideen legeztatzeaz eztabaida sozial handia dago. Espero dut gure ikerketan lortzen ditugun datu zientifikoek ebidentzia nahikoa eskaintzea botikak erregulatzeko agentziei konbentzitzeko konpostu kannabinoideak eraginkorrak eta seguruak izan daitezkeela tratamendu zehatzetarako. Zientzian motibatzen nauena, gure gizarteak dituen osasun erronkei aurre egiten lagundu ahal izatea da.

Kristalezko sabaia' zure karrera zientifikoan oztopo izan dela uste duzu?

20 urte baino gehiagoz egindako lan gogor eta etengabeari esker, hona iristea lortu dut. Zorionez, nire garapena ahalbidetu duten pertsonekin lan egin dut, eta emakume izanik, hori ez da beti erraza izaten. Horregatik, oso zorionekoa sentitzen naiz.

Zer aholku emango zenieke zientziako karrera bat burutu nahi duten herriko neska gazteei?

Ibilbide zientifikoa oso eskaragarria da eta, askotan, behar bezala baloratzen ez dena. Erronka handiei aurre egitea eskatzen du, eta, zoritxarrez, emakumeontzat erronka horiek are handiagoak dira, beste arlo batzuetan bezala, berdintasuna oraindik lortu gabeko helburua baita ikerketa-munduan.

Hala ere, bide hau hartzeko prest dagoen edonori emango niokeen aholku bat da lidergo autoritarioetatik urruntzea, horiek, oro har, lan-ingurune hierarkikoak sortzen baitituzte, eta horrek genero-berdintasunean eragin negatiboa du. Garrantzitsua da lankidetzak sustatzen duten, kide guztien parte-hartzea bultzatzen duten eta ideien eta trebetasunen aniztasuna baliatzen duten lidergoekin inguratzea eta horrelako lidergoak praktikan jartzea.

«Las mujeres participamos activamente en la investigación científica, pero en demasiadas ocasiones nuestro trabajo queda en la sombra»

¿Qué hizo que te interesaras por la ciencia?

Siempre me ha fascinado el cerebro humano. Es nuestro centro de control, el órgano que define quiénes somos y cómo vemos el mundo.

¿Cuál es el mayor reto que has tenido en tu carrera científica y cómo lo has superado?

Soy profesora en la Facultad de Medicina. Eso ocupa parte de mi jornada laboral y tener mi propio equipo de investigación ha sido un reto muy grande. Conseguir financiación para desarrollar nuestros proyectos de investigación no ha sido fácil, pero lo hemos conseguido gracias al gran trabajo del equipo.

¿Qué aportación hacen las mujeres al desarrollo científico y tecnológico?

Las mujeres tenemos mayores dificultades que los hombres para que nuestro trabajo sea reconocido, ya que nos enfrentamos a retos como la brecha de género, la falta de reconocimiento y el acceso desigual a los recursos. Sin embargo, nuestro papel es fundamental para el avance del conocimiento y la innovación.

¿Crees que el 'techo de cristal' ha sido un obstáculo en tu carrera científica?

Gracias a mi duro y constante trabajo durante más de 20 años, he conseguido llegar aquí. He tenido la suerte de trabajar con personas que han hecho posible mi desarrollo, y siendo mujer, eso no siempre es fácil. Por eso, me siento muy afortunada.

¿Qué consejos darías a las jóvenes de la localidad que quieran estudiar una carrera científica?

Que se alejende los liderazgos autoritarios que generan entornos de trabajo jerárquicos y que inciden negativamente en la igualdad de género.

ALAZNE

GURRUTXAGA UGARTE

IKASKETAK:
INGENIARITZA INDUSTRIALA

OGIBIDEA:
INGENIARIA

LANTOKIA:
ORKLI KOOP. ELK.



«Badirudi badagoela emakumeak hainbat postuetara bideratzeko beldurra»

Zerk piztu arazi zizun zientziarekiko interesa?

Niri betidanik gustatu izan zaizkit matematika, fisika eta kimika bezalako ikasgaiak. Oso ikasgai gustukoak izan ditut, arrazoiak ez dauzkat garbi, baina logikan oinarritutakoak direlako esango nuke. Ikasgai horietan gertatzen ari zena ulertzea gustatzen zitzaidan, buruz ikasi beharrean.

Hori oinarri hartuta, batxilergorako ez nuen zalantzarik izan eta adar zientifikoa aukeratu nuen eta handik berriz, unibertsitateari begira, Ingeniariara jo nuen.

Zein da zure ibilbide zientifikoan izan duzun erronkarik handiena eta nola gainditu duzu?

Lan munduan izan dudan erronkarik handienetakoa atzerrian bizi izan nuela esango nuke. Ez zen zientziarekin zuzenean erlazionaturik egon, baina bai emakumea izatearekin. Orkli Koop. Elkartearen hasi nintzeanean lanean, urte t'erdir Txinara joan behar izan nuen, bertan geneukan lantegian negozio berri bat martxan jartzera. Pentsa dezakezue, 2007. urtean

Shanghaira iritsi eta bertako txinatarrek ze aurpegi jarri zuten emakume gazte bat agertu zenean gauzak nola egin behar zituzten esatera. Garbi izan behar da txinatarrek pertsonak beraien lan mailaren arabera sailkatzen zituztela. Ez zen erraza izan horretara moldatzea, baina topatu genuen gure lekua ere.

Zer nolako ekarpena egiten diote emakumeek garapen zientifiko eta teknologikoari?

Garbi dago historian zehar emakume asko eta asko izan direla ekarpen zientifiko garrantzitsuak egin dituztenak, baina zenbakiak erakusten duten bezala, zoritxarrez, ezin dugu alderatu gizonezkoen ekarpen mailarekin. Desberdintasun hau ez da inoiz egon gaitasun arrazoietan oinarrituta, genero ikuspegia izan da gehienbat emakumeak zientzian aurrera egitera mugatu duena. Gainera, kasu askotan emakumeek ere ezin zuten bere aurkikuntzarekin aurrera jarraitu, ondoan gizonezko bat ez bazuten bere babesa emanez (aita, senarra, anaia...).

Zure ekarpen zientifikoak zer nolako eragina du jendartean?

Nire lan bizian lan desberdinak egiteko aukera izan dut. Lehen urteetan produktuen diseinuan ibili nintzen eta produktu batzuen garapenean laborategian ibiltzeko aukera izan nuen. Garai hartako nire ekarpena merkatura-tutako produktuak izango lirateke, zehazki esanda, etxee-tan dauzkagun berokuntza sistemetako hainbat produktu eta sistema.

Azken urteetan nire lana kudeaketara bideratuago egon denez, ez da hain "zientifikoa" izan. Baina oraingo lanean gehiago "defendatu" behar izan dut emakume izatea. Eros-keta kudeatzaile bezala lanean ari naizenez, beste enpre-setako hornitzaileekin negoziatzea dagokit eta batzuetan ni baino zaharragoak diren gizonezkoekin lan egin behar izaten dut. Honez gain, Orkliko Kontseilu Sozialean ere banabil eta bertan berdintasunaren aldeko lanketa egitea ere badagokigu. Arlo honetan gure ekarpena esanguratsua izatea espero dugu.

«Gure enpresako zuzendaritzan %20a baino ez dira emakumeak, artezkaritzan ere ehunekoia antzekoa da»

'Kristalezko sabaia' zure karrera zientifikoan oztopo izan dela uste duzu?

Nik pertsonalki ez dut hori nabaritu, baina onartu beharra daukat badagoela zerbait. Gure enpresako zuzendaritzan %20a baino ez dira emakumeak, artezkaritzan ere ehunekoia antzekoa da. Badirudi badagoela emakumeak hainbat postuetara bideratzeko beldurra. Berdintasun arloan azken urteetan egiten ari garen lanak aldaketak ekarri beharko lituzke motzean, baina oraindik ere ez dakit gizartea horretarako prest ote dagoen. Asko eta askok esango dute baietz, prest gaudela eta ez dagoela sabairik. Baina uea iristen denean... Kristalezkoa omen da sabaia, izena jarri zionak behintzat bazekien zer edo ez. Kristalezkoa.

Zer aholku emango zenieke zientziako karrera bat burutu nahi duten herriko neska gazteei?

Badakit zaila dela erreferente gutxi dauden arloetan neska gazte batek bere burua bertan irudikatzea. Baina gaur egun emakumea indartzen ari den honetan eta bere buruarengan konfidantza irabazten ari den honetan, nire aholkua garbia da: benetan arlo horiek gustuko badituzte, egin dezatela aurrera eta ireki ditzatela bide berriak. Zientzia arloan aurrera egiten duen emakume bakoitzak ematen du pauso bat aurrera, atzetik datozenek errazago egin dezaten bidea.

«Parece que hay miedo a destinar mujeres a algunos puestos de trabajo»

¿Qué hizo que te interesaras por la ciencia?

A mí siempre me han gustado las asignaturas de matemáticas, física y química, seguramente porque están basadas en la lógica.

¿Cuál es el mayor reto que has tenido en tu carrera científica y cómo lo has superado?

Cuando empecé a trabajar en Orkli Koop. tuve que ir a China a poner en marcha un nuevo negocio que teníamos allí. Imaginaos la cara que pusieron los chinos de Shanghai cuando apareció una mujer joven a decirles cómo iban a hacerse las cosas...

¿Qué aportación hacen las mujeres al desarrollo científico y tecnológico?

Es evidente que han sido muchas las mujeres que han realizado aportaciones científicas importantes, pero desgraciadamente, no podemos compararlo con la cantidad de aportación de los hombres. Esta desigualdad nunca ha estado basada en razones de competencia, ha sido la perspectiva de género la que ha limitado a la mujer a progresar en la ciencia.

¿Crees que el 'techo de cristal' ha sido un obstáculo en tu carrera científica?

Yo personalmente no lo he notado, pero tengo que reconocer que hay algo. En la dirección de nuestra empresa sólo el 20% son mujeres. Parece existir una especie de temor a destinar mujeres a diferentes puestos.

¿Qué consejos darías a las jóvenes de la localidad que quieran estudiar una carrera científica?

Si de verdad les gustan estas áreas, que avancen y abran nuevos caminos. Cada mujer que avanza en el ámbito científico da un paso al frente para que las que vienen por detrás lo tengan más fácil.

LAURA MOSQUEIRA MARTIN

IKASKETAK:

BIOTEKNOLOGIA GRADUA, IMMUNOLOGIA MASTERRA ETA BIOMEDIKUNTZA DOKTORETZA

OGIBIDEA:

IKERLARIA

LANTOKIA:

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
ETA BIOGIPUZKOA OSASUN IKERKETA
INSTITUTOA



«Oraindik, taldeburua edo zuzendaritza zientifikoa bezalako karguak gizonezkoek betetzen dituzte»

Zerk piztu arazi zizun zientziarekiko interesa?

Zientziarekiko interesa derrigorrezko bigarren hezkuntzan sortu zitzaidala esango nuke, biologiako ikasgaietan hain zuzen ere, ikasgai polita iruitu zitzaidan eta. Gainera, ikasteko erretasuna nuela eta, batxiller mota aukeratzeko orduan arlo zientifikotik joatea erabaki nuen. Unibertsitate ikasketak aukeratzeko garaian, biologia, medikuntza eta garapen teknologikoarekin erlazionatuta dagoen gradu bat egin nahi nenez, bioteknologia gradua burutzea erabaki nuen.

Zein da zure ibilbide zientifikoan izan duzun erronkarik handiena eta nola gainditu duzu?

Denbora urritasuna esango nuke izan dela nire erronkarik handiena, azken finean doktoretza ikas-

ketak burutzeko dagoen epea mugatua da. Zientzia aldiz mugagabea da, beti dago tesi "borobil" bat entregatzeko egin daitekeen esperimendu gehigarriren bat. Bi hauen arteko oreka aurkitzea ezinbestekoa da, eta guztia erantzutea ezinezkoa dela onartzea.

Zer nolako ekarpena egiten diote emakumeek garapen zientifiko eta teknologikoari?

Nire ustez, garapen zientifiko eta teknologikoari ikertzaileok egiten diogun ekarpena generoarekiko independentea da. Egia da emakumeek zientzian duten papera beranduagokoa dela, baina ez dut uste gaur egun ekarpena gizonenaren aldean ezberdina denik.

Zure ekarpen zientifikoak zer nolako eragina du jendartearen?

Nire kasuan, gaur egun sendabiderik ez duen eta heriotza goiztiarra duen gaixotasun baterako (Duchenneko muskulu distrofia) terapia alternatiboak aztertzen ditut. Gaixotasun arraroa den arren, paziente pediatrikoetan gehien diagnostikatzen den distrofia muskularra da. Horregatik, ezinbestekoa da terapia berrien ikerketan eta garapenean aurrera egitea, haur hauen bizitzan eragin handia izan dezaketelako.

«Emakumeek zientzian duten papera beranduagokoa da, baina ez dut uste gaur egun ekarpena gizonenaren aldean ezberdina denik»

Kristalezko sabaia' zure karrera zientifikoan oztopo izan dela uste duzu?

Ez nuke esango pertsonalki 'kristalezko sabaia'-ren eragina jasan dudarik. Nire arloan, osasun ikerketan, emakumeon portzentaia gizonezkoena baino handiagoa dela esango nuke. Ikertzaile nagusien artean ere ez dut kontsideratzen generoarekiko desberdintasunik dagoenik. Egia da, oarindik, taldeburua edo zuzendaritza zientifikoa bezalako karguak gizonezkoek betetzen dituztela, baina ziur nago belaunaldi aldaketarekin ez dela bereizketarik izango genero aldetik, emakumeek kargu horiek bete nahi izanez gero.

Zer aholku emango zenieke zientziako karrera bat burutu nahi duten herriko neska gazteei?

Benetan gustoko izatekotan, nire aholkua asko ikastea izango litzateke, kostantea izatea eta norberan konfiantza izatea, besteak egiteko gai izan badira zu ere gai izango zarela pentsatzea. Ibilbide lehiakor eta oso sakrifikatua da, baina oso pozgarria gizaratean eta pertsonengan izan dezakezun eragina kontuan hartuta. Bestalde, esfortzu orok momenturen batean saria dakarrela azpimarratuko nuke, beraz eutsi goiari eta aurrera!

«Nire arloan, osasun ikerketan, emakumeon portzentaia gizonezkoena baino handiagoa da»

«Todavía cargos como jefe de equipo o dirección científica son desempeñados por hombres»

¿Qué hizo que te interesaras por la ciencia?

El interés surgió en la ESO, en la asignatura de biología. A la hora de elegir estudios universitarios decidí hacer el grado de biotecnología.

¿Cuál es el mayor reto que has tenido en tu carrera científica y cómo lo has superado?

Diría que la escasez de tiempo ha sido mi mayor reto. Al fin y al cabo el plazo para completar los estudios de doctorado es limitado. La ciencia, en cambio, es ilimitada.

¿Qué aportación hacen las mujeres al desarrollo científico y tecnológico?

Creo que la contribución de los investigadores y las investigadoras al desarrollo científico y tecnológico es independiente del género. Es cierto que el papel de las mujeres en la ciencia es más tardío, pero no creo que hoy en día la aportación sea diferente a la de los hombres.

¿Crees que el 'techo de cristal' ha sido un obstáculo en tu carrera científica?

No diría que he sufrido el efecto del "techo de cristal". En mi campo, la investigación sanitaria, el porcentaje de mujeres es mayor que el de los hombres. Es cierto que cargos como jefe de equipo o dirección científica son desempeñados por hombres, pero estoy convencida de que con el cambio generacional no habrá distinciones de género.

¿Qué consejos darías a las jóvenes de la localidad que quieran estudiar una carrera científica?

Sería estudiar, ser constante y confiar en una misma. Si el resto ha sido capaz de hacerlo tú también lo serás. Es un recorrido competitivo y muy sacrificado, pero muy gratificante.

MIRIAM

UGARTE QUEREJETA

IKASKETAK:

TELEKOMUNIKAZIOEN
INGENIARITZA

OGIBIDEA:

IKERLARI ETA
UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

LANTOKIA:

MONDRAGON UNIBERTSITATEA



«Emakume zientzilariak behar dira, beraien ikuspegia eta beharrak ere kontutan hartu daitezzen»

Zerk piztu arazi zizun zientziarekiko interesa?

Txikitatik gustuko izan ditut matematikak. Beraz, zientzia alorretik joan nintzen pixkanaka eta telekomunikazioen ingeniarietza ikasi nuen.

Zein da zure ibilbide zientifikoan izan duzun erronkarik handiena eta nola gainditu duzu?

Bi erronka ezberdin aipatuko nituzke. Telekomunikazio ingeniari bezala atzerrira joateko aukera sortu zitzaidan, Londresera zehazki, bertan satellite bidezko komunikazioko enpresa batatan lan egitera. Erronkarik handiena atzerritarra, emakumea eta gaztea izanik (22 urterekin joan baintzen), gizonetzkoak nagusi diren gremio honetan nere tokia egitea izan zen. Egia esan, ondo hartu ninduten baina gizonetzkoek baino gehiago borrokatu behar nuela ohartu nintzen. Bestalde, aipatu nahiko nukeen beste erronketako bat doktoretza izan da. Erresuma batutik itzultzean, doktoretza egiten hasi nintzen

Mondragon Unibertsitatean Marie Curie bekari esker. Egia esan doktoretza gorabehera asko dituen etapa bat eta hau aurrera eramateko presioa oso presente nuen 3 urtetan zehar, baina presio hori alde batera utzi eta egunerokoan lana egiten azkenean gauzak ateratzen dira.

Zer nolako ekarpena egiten diote emakumeek garapen zientifiko eta teknologikoari?

Emakumeek garapen zientifiko eta teknologikoan duten ekarpena ezinbestekoa da. Genero sesgo handia dago egia esan, izan ere, orain arte teknologia eta zientzia asko gizonetzkoen eskuetan egon da eta egin diren frogak zientifiko askotan ez dira kontutan hartu emakumeak. Esaterako, 80-90 hamarkadetan gizonetzkoak soilik hartu zuten parte bihotzekoen ikerketan, sintomak gizonetzko zein emakumeentzat orokortzat joaz.

Gerora, emakumeen kasuan sintomak oso ezberdinak zirela ikusi zen. Beraz, emakume zientzilariak behar dira, beraien ikuspegia eta beharrak ere kontutan hartu daitezzen.

«Zientzia denona da eta benetan gogoia edukiz gero aurrera egiteko aholkatuko nieke neska gazteei»

Zure ekarpen zientifikoak zer nolako eragina du jendaratean?

Nere ikertekela softwarea testetzeko metodologia ezberdinetan datza. Hau da, programa bat akatsez librea izan dadin, hau testatzeko metodologia ezberdinak ikertzen ditugu. Azkenaldian, orain pil-pilean dagoen ChatGPT bezelako adimen artificial generatiboaren segurtasuna testetzen gabilta. Modelo hauek etikoak eta legalak ez diren erantzunak ezin dituzte eman, eta herramienta bat garatu berri dugu ikuspegi hauek testatzeko

Kristalezko sabaia' zure karrera zientifikoan oztopo izan dela uste duzu?

Lehen aipatu dudan bezala, ingalateran nengoela bai antzeman nuen zertxobait, baina erronka bezela hartu nuen eta ez zen oztopo izan. Ez zen emakume izategataik soilik, nere ustetan faktore gehiago zeuden, besteak beste atzerritarra eta gaztea. Beraz, nere tokia egin behar izan nuela eta jendearen konfiantza irabazi, gizonezkoena batez ere. Bestalde, orain egiten ari naizen ibilbidean ez det alakorik antzeman.

«Erronkarik handienetakoa izan zen gizonezkoak nagusi diren gremio honetan nire tokia egitea»

Zer aholku emango zenieke zientziako karrera bat burutu nahi duten herriko neska gazteei?

Beldurrik ez edukitzeko, zientzia denona dela eta benetan gogoia edukiz gero aurrera egingo dutela. Askotan akatsak egiteko beldurra izan ohi dugu, baina hori normala da, akatsak egin behar dira ikasi ahal izateko, beraz gustuko izanez gero, aurrera eta zeuen tokia egin zientzia eta teknologia munduan!

«Se necesitan mujeres científicas para que se tenga en cuenta su visión y sus necesidades»

¿Qué hizo que te interesaras por la ciencia?

Desde pequeña me han gustado las matemáticas. Así que fui poco a poco por el campo de la ciencia y estudié ingeniería de telecomunicaciones.

¿Cuál es el mayor reto que has tenido en tu carrera científica y cómo lo has superado?

Como ingeniera me surgió la posibilidad de ir a Londres a trabajar. Allí el mayor reto fue hacerme un hueco en este gremio dominado por los hombres

¿Qué aportación hacen las mujeres al desarrollo científico y tecnológico?

La contribución de las mujeres al desarrollo científico y tecnológico es imprescindible. La realidad es que hay mucho sesgo de género, ya que hasta ahora muchas tecnologías y ciencias han estado en manos masculinas y en muchas de las pruebas científicas que se han hecho no se ha tenido en cuenta a las mujeres

¿Crees que el 'techo de cristal' ha sido un obstáculo en tu carrera científica?

En Inglaterra sí, pero lo asumí como un reto y no fue un obstáculo. No era sólo por ser mujer, yo creo que había más factores, entre otros ser de otro país y joven. Así que tuve que hacerme un hueco y ganarme la confianza de la gente, sobre todo la de los hombres.

¿Qué consejos darías a las jóvenes de la localidad que quieran estudiar una carrera científica?

No tener miedo, que la ciencia es de todas las personas y que si realmente tienen ganas, saldrán adelante. Muchas veces tenemos miedo a cometer errores, pero eso es normal, hay que cometer errores para poder aprender, así que si te gusta, ¡adelante y haced vuestro lugar en el mundo de la ciencia y la tecnología!

Amasa-Villabonako neska gazte guztientzat:
Zientziak zuen talentua behar du!
Biologiatik ingeniartzara, medikuntzatik matematikara...
aukerak infinituak dira!
Ez du axola zer arlo aukeratu duzun,
garrantzitsuena zure pasioa jarraitzea da.
Izan zaitez zu zeu zure etorkizunaren protagonista.

Para todas las jóvenes de Amasa-Villabona:
¡La ciencia necesita vuestro talento!
Desde la biología a la ingeniería, desde la medicina a las matemáticas...
¡Las posibilidades son infinitas!
No importa qué área elijas, lo importante es seguir tu pasión,
y que la protagonista de tu futuro seas tú misma.